

MUSIKA ETA FOLKLOREAREN HISTORIA

Azterketa

2000. urtea

EHU / UPV



Gizapedia

gizapedia.org



UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Departamento de Didáctica de la Expresión
Musical, Plástica y Corporal.
MUSIKA, PLASTIKA ETA GORPUTZ-
-ADIERAZPENAREN DIDAKTIKA SAILA

2000/01/31

-B-

IKASGAIA MUSIKA ETA FOLKLOREAREN HISTORIA

IZENA ~~XXXXXXXXXX~~DEITURAK ~~XXXXXXXXXX~~ZERREDA ZENBAKIA 8

Test honetan agertzen diren galdera bakoitzean erantzun zuzena bakarria dago (galdera batek erantzun on bat baino gehiago badu, ondo dagoena da erantzun onak biltzen dituen aukera). Erantzuteko aukeratzen duzun erantzunaren letra borobildu behar duzu.

Puntuaketa: galdera zuzenak 0,2 puntu balio du

Azterketaren iraupena: 60 minutu

Test hau azterketa-gelatik ezin da atera

1. *Atzo ttun ttun* abestiak betetzen dituen ezaugarriak aukeratu:
 - a) erritmo bitarra, anbito estua, modu minorra
 - b) erritmo hirutarra, anbito zabala, modu minorra
 - ☒ c) erritmo bitarra, anbito zabala, modu maiorra
 - d) erritmo hirutarra, anbito zabala, modu maiorra
 - ☒ e) erritmo bitarra, anbito zabala, modu minorra
2. Jarraian agertzen diren baieztapenen artean, zein da txarto dagoena?: *Atzo ttun ttun* abestia euskal tradiziokoa da
 - a) ahozko tradizioz kontrserbatu delako
 - b) sehaska kanta bat delako nahiz eta testuan hori ez adierazi, beraz, funtzionala da
 - ☒ c) musika-tresnarik ez dagoelako
 - d) euskeraz kantatzen delako
 - e) aldaketak izan dituelako
3. 2. adibide musikala: *Obraren zati hau*
 - ☒ a) koru eta orkestarako *Kontzertu* bat da
 - b) *Kantata* bat da
 - c) *Oratorio* bat da
 - ☒ d) *Sinfonia* bateko mugimendu bat da
 - e) obra koral nagusi bat da
4. Obra honek suposatzen duenagatik, kokatu estilo musikala batean
 - a) XX. mendeko obra dela esan dezakegu lengoai berri bat erabiltzen duelako
 - b) Beethovenena denez, obra klasikoa dugu
 - c) azaltzen diren ideia eta planteamendu musikalaren arabera, erromantikoa da
 - ☒ d) Nazionalismo musikalaren barruan kokatzen da sentimendu nazionalistak pizten direlako
 - e) c eta d galderak batera erantzun zuzena da
5. Entzunaldiaren obraren testuak
 - a) Europa mailan bizitzen den desesperazioa salatzen du.
 - b) Jaungoikoaren semearen jaiotza ospatzen du
 - ☒ c) gizakien arteko anaitasuna bultzatzen du
 - d) inguruan bizitzen den alaitasuna adierazten du
 - e) b eta d galderak batera erantzun zuzena da

6.3. adibide musikala:

- a) eleiz musika da
- b) gorteetako musika da
- ☒ c) trobalaritzaren barruan kokatzen den Ama Birjinari zuzendutako kanta da
- d) lehenengo garaiko operaren zati bat da
- e) a eta c

7.3. adibide musikala: kokatu garai musikalki baten barruan

- a) Erdi Aroko polifonia erlijiosoa
- ☒ b) Erdi Aroko polifonia profanoa
- c) Errenazimentua
- d) Barrokoa
- e) Klasizismoa

8.3. adibide musikala: erabiltzen den textura musikala adierazi.

- a) monofonikoa
- ☒ b) kontrapuntistikoa
- c) homofonikoa
- d) harmonikoa
- e) monodikoa

9. Musika tradizionala

- a) historiaren garai guztietan kontuan hartu da
- b) musika *kultxo*aren barruan XX. mende arte ez da erabiltzen
- c) nazionalismo musikalak erabiltzen duen materiala da
- ☒ d) musika erromantikoarekin kontuan hartzen hasten da.
- e) Iraultza Frantsesak inposatzen du

10. Gaur egun, euskal ahozko tradiziozko kanta

- a) gure aurrokoek kantatzen zuten bezala konserbatzen dira
- b) kantategietan agertzen dira guztiak bilduta
- c) desagertu dira
- ☒ d) aldatzen joan dira
- e) a eta b galderak batera erantzun zuzena da

11. Ahozko tradiziozko musikan

- a) egilea herri bateko folklorea oinarritzen da musika konposatzeko
- b) egilearen irudiak ez du garrantzirik
- c) egilea nongoa den kontuan hartzen da
- d) herria, bera, egile bezala azaltzen da
- ☒ e) b eta d galderak batera eman behar dira

12. Folklorismoa-k

- a) eta folklorea kontzeptu berdina da
- b) gaur egungo folkloreaki deitzen zaio
- c) folklorea idazten denetik sortzen da
- d) folkloreaki jarraipen eta imitazio bat da
- ☒ e) produkto folklorikoa bere testuingurutik kanpo ateratzen du

13. Folklore musikala eta musika popularra gauza bera da

- a) biak, ahozko tradizioz mantentzen direlako
- b) herriak erabiltzen dituen musikak direlako
- c) idazten ez diren musikak direlako
- ☒ d) ez dira berdina
- e) a eta b galderak batera erantzun zuzena da

21. Tonalitatea, musikaren oinarri bezala, noiz esan dezakegu finkatzen dela?

- a) Errenazimentuan
- b) Barrokoan
- ☒ c) Klasizismoan
- d) Erromantizismoan
- e) Nazionalismo musikalarakin

22. Sonata formarekin ezagutzen dituzun forma musikalak esan

- ☒ a) sonata, kontzertua eta sinfonia
- b) sonata, sinfonia eta lied
- c) sonata, suitea eta sinfonia
- d) sonata, *concerto grosso* eta sinfonia
- e) sonata, kontzertua eta suitea

23. Zein texturan idazten da fuga bat?

- a) textura ezberdinetan idaz daiteke
- b) estilo monofonikoan
- c) estilo homofonikoan
- d) estilo harmonikoan
- ☒ e) estilo polifonikoan

24. Idazkera horizontala

- ☒ a) textura monofoniko eta polifonikoan ematen da
- b) textura monofoniko eta armonikoan ematen da
- c) textura polifoniko eta kontrapuntistikoan ematen da
- d) textura ez melodiko eta homofonikoetan
- e) beti ematen da

25. Jarraian aipatzen diren musika-generoen artean, ahotsetarako ez dena esan

- a) lied
- ☒ b) suite
- c) cantata
- d) pasioa
- e) guztiak dira ahotsetarako musika

26. Ondoko baieztapen hauen artean txarto dagoena esan: *San Benitoren irudia oso garrantzitsua da*

- ☒ a) San Gregorio bezela Elizarako kantuak landu zituelako
- b) Ofizioak eta Mezak konposatu zituelako
- c) monastegi barruko bizitza antolatu zuelako
- d) San Benitoren Erregela asmatu zuelako
- e) eguna, kantuen arabera, ordu ezberdinetan sailkatu zuelako

27. Mendebaldeko Erdi Aroko musikaren sustraiak non kokatzen dira?

- ☒ a) Kristautasunaren sorreretan
- b) Eliza Katolikoaren jaiotzarekin batera
- c) San Gregorio aita santuak egindako lanetan
- ☒ d) Erromatarren Inperioaren desagertzearekin
- e) Erdi Aroko hasieran

28. Musika gregorianoaren ezaugarriak ondoko hauek dira

- a) musika funtzionala, musika neurtua, monodikoa, latinez idatzia
- b) musika erlijioso eta profanoa, erritmo librea, monodikoa, latinez idatzia
- c) musika neurtua, melodia librea, musika erlijiosoa, latinez idatzia
- ☒ d) erritmo librea, monodikoa, musika funtzionala, latinez idatzia
- e) erritmo librea, melodia librea, monodikoa, musika erlijiosoa

14. Ahozko tradiziozko musikan
- a) gizakiaren testuingurak garrantzi handia du
 - b) musikariak musika-formazioa du
 - c) aurrekoengandik ikasitako musika ematen da
 - d) a eta b elkarrik erantzun zuzena da
 - ☒ e) a eta c elkarrik erantzun zuzena da
15. Folklore hitza
- a) Erromantizismoan sortu zen herriak ikertzen dituen zientziari izena emateko
 - b) Nazionalismoan sortu zen herriak ikertzen dituen zientziari izena emateko
 - c) XX. mendean sortu da herriak ikertzen dituen zientziari izena emateko
 - ☒ d) 1846an asmatu zen herri zibilizatuen "kultura gabeko" giza-taldeak jakintza tradizionalari deitzeko
 - e) 1946an asmatu zen herri zibilizatuen "kultura gabeko" giza-taldeak jakintza tradizionalari deitzeko
16. Musikaren elementuak
- ☒ a) melodia, erritmoa eta harmonia dira
 - b) altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea dira
 - c) a eta b galderak batera erantzun zuzena da
 - d) forma, jenero eta textura dira
 - e) a, b eta d galderak batera erantzun zuzena da
17. Maila edo garrantzi berdineko melodia ezberdinek batera soinu egiten dutenengan, zein textura mota definitzen ari gara?
- a) monofonikoa
 - b) ez melodikoa
 - ☒ c) polifonikoa
 - d) harmonikoa
 - e) azkenengo biak batera
18. Aurretik erabakitako arau edo oinarriak kontuan hartuz egindako obra musikalaren antolaketa da. Definizio honekin
- ☒ a) forma definitzen ari gara
 - b) musika-jeneroa definitzen ari gara
 - c) estilo musikala definitzen ari gara
 - d) aurreko kontzeptu guztiak batera definitzen ari gara
 - e) beste kontzeptu bat definitzen ari gara: (aipatu zein)
19. Musika modala dela, esaten dugu,
- a) modu maiorra edo minorrean oinarritzen denean
 - b) tonalitatearekin zer ikusirik ez duenean
 - ☒ c) Erdi Aroko modu gregorianoetan oinarritzen denean
 - d) mende honetako musika denean
 - e) abanguardiko musika denean
20. Sistema diatonikoa
- a) tonalitatean oinarritzen den sistema da
 - b) 7 nota dituen eskala diatonikoetan oinarritzen da
 - c) eskala modalekin osatzen da
 - ☒ d) bost tonu eta bi tonuerdiz osatutako zazpi noten eskaletan oinarritzen da
 - e) a eta b galderak batera erantzun zuzena da

29. Erdi Aroko musikaren munduaren barruan ondoko izen hauek oso ezagunak dira
- a) Leonin, Perotin, Gesualdo eta Franco de Colonia
 - ☒ b) Leonin, Perotin, Guido d'Arezzo eta Franco de Colonia
 - c) Leonin, Perotin, Guido d'Arezzo eta Monteverdi
 - d) Leonin, Perotin, Guido d'Arezzo eta Gesualdo
 - e) guztiak dira Erdi Arokoak
30. Mendebaldeko musika polifonikoa
- a) Errenazimentuan sortzen da musika profanoarekin
 - b) Erdi Aroan sortzen da musika profanoarekin
 - ☒ c) Errepertorio gregorianoaren erabilpenarekin sortzen da Erdi Aroan
 - d) notazio musikalaren sorrerarekin asmatzen da Erdi Aroan
 - e) erantzun guztiak txarto daude
31. Trobalarrizaren fenomenoa
- a) X-XI. mendeen arteko ematen den musika monodiko eta profanoa da
 - b) Frantzia garatzen den musika monodikoa da
 - c) Errenazimentuko hasieran eta Europa mailan ematen da
 - ☒ d) XII-XIII. mendeen arteko ematen den monodia lirikoari deitzen zaio
 - e) Erdi Aroan ez erlijiosoa den musikari deitzen zaio
32. Errenazimentuko musikaren erreforma dela eta
- a) Eliza katolikoa alde azaltzen da
 - ☒ b) Eliza katolikoa erreformaren aurka azaltzen da
 - ☒ c) erreformaren ondorioz eliza zatitzen da
 - d) a eta c galderak batera
 - ☒ e) b eta c galderak batera
33. Errenazimentuko musikaren ezaugarri aipagarriena aukeratu
- ☒ a) ahotsetarako polifonia erlijiosoa da nagusi
 - b) ahotsetarako polifonia profanoa da nagusi
 - ☒ c) instrumentuen garapena eta haienezako idazten den musika
 - d) a eta b galderak batera
 - e) b eta c galderak batera
34. Errenazimentuko ahotsetarako polifoniar erabiltzen den textura nagusia
- a) estilo homofonikoa
 - ☒ b) estilo kontrapuntistiko
 - c) estilo monofoniko
 - d) estilo harmonikoa
 - e) textura ez melodikoa, garrantzitsuena testua duelako
35. Ondoko erantzunen artean txarto dagoena esan. *Errenazimentuan, Martin Luterok*
- ☒ a) kontrarreforma bultzatuko du
 - b) eleiz errepertorioko kantuak alemanieraz itzultzen ditu
 - c) herri-musikak erabiltzen ditu Elizarako
 - ☒ d) Elizan erreformak sartu nahi ditu
 - e) Protestantismoa sortuko du
36. Noiz kokatzen duzu Barroko garaia?
- a) garatzen den leku desberdinen arabera ezin da denboran mugatu
 - ☒ b) 1600. urtetik-1750. urtera
 - c) 1650. urtetik-1750. urtera
 - d) XVII. mendearen zehar
 - e) XVII-XVIII. mendeen artean

37. *Concertare* hitzaren esanahia honako hau da

- ☒ a) ahots guztien harmonia
- ☐ b) ahotsen arteko kontrastea
- ☐ c) *kontzertua* forma instrumental berria dela
- ☐ d) bakarlari bat dagoela
- ☐ e) musika instrumentala dela

38. Barrokoari dagozkion ondorengo baieztapenen artean baten bat txarto badago adierazi

- ☐ a) ahotsak eta instrumentuak garrantzizko maila berdinean daude
- ☐ b) ahotsetarako forma berriak: opera, oratorioa, kantata
- ☒ c) polifonia da nagusi
- ☐ d) orkestaren sorrera ematen da
- ☐ e) guztiak daude ondo

39. Jarraian aurkezten diren baieztapenen artean, txarto dagoena aipatu: *Barroko garaian sortzen diren forma instrumentalen artean* :

- ☐ a) korda laukotea oraindik ez da erabiltzen
- ☐ b) sonata sortzen da
- ☒ c) forma instrumental guztiek erabiltzen dute sonata forma
- ☐ d) sinfonia eta kontzertua sortzen dira
- ☐ e) hiru mugimenduetan banatzen dira

40. Zeintzu dira Klasizismoko musikaren ezaugarriak?

- ☐ a) musika purua egiten da
- ☐ b) ilustrazio musikala, burgesiaren ideologia bezala, da oinarria
- ☐ c) tonalitatea finkatzen da
- ☒ d) aurreko hirurak elkarrik ezaugarriak bezala azaltzen dira
- ☐ e) a eta c galderak, bakarrik, erantzun zuzenak dira

41. *Forma sonatak* honako egitura lantzen du

- ☐ a) A B A (A zatian 2 gaiekin)
- ☐ b) Aurkezpena Garapena Aurkezpena Coda
- ☐ c) Aurkezpena (gai bat) Garapena Berraurkezpena Coda
- ☒ d) Aurkezpena (bi gai) Garapena Berraurkezpena Coda
- ☐ e) c eta d ondo daude gaiaren kopurua berdin delako

42. Klasizismo musikala kokatu data hauen artean

- ☐ a) 1700-1800
- ☐ b) 1750-1900
- ☒ c) 1750-1810
- ☐ d) 1750- 1850
- ☐ e) 1800-1900

43. Erantzun okerra aipatu. *Klasizismoan*

- ☒ a) orkesta garatzen doa
- ☐ b) musika arrazionala da
- ☒ c) musikari garrantzitsuenek musika-jenero guztiak erabiltzen dute
- ☐ d) ahotsetarako musika ea ez da lantzen
- ☐ e) musikaren purutasuna bilatzen da

44. Erromantizismoaren hasiera kokatu musikaren historiaren barruan

- ☐ a) XVIII. mendeko bukaera
- ☒ b) XIX. mendeko hasiera
- ☐ c) XIX. mendeko erdialdera
- ☐ d) XIX. mendeko bukaera
- ☐ e) XX. mendeko hasiera

45. Ondoko baieztapenen artean, okerra dena esan: *Erromantizismoan*

- ☒ a) Handitasuna forma handien bidez adierazten da
- b) Barrukotasuna forma txikien bidez adierazten da
- ☒ c) Klasizismoan landutako formak baztertzen dira
- d) Orkestra handiagotzen da
- e) Pianoa instrumentu errege bezala azaltzen da

46. Erromantizismoko ezaugarriak aukeratu

- a) musikaren purutasuna adierazten da
- b) sentimenduak adierazteko, musika bide egokiena bezala azaltzen da
- c) musika-jenero guztiak lantzen dira gehi sortzen diren forma libre batzuk
- d) a eta c zuzenak dira
- ☒ e) b eta c zuzenak dira

47. Erromantizismoko ahotsetarako musikaren barruan era berezian lantzen den musika-jeneroa, aurretik ez dena landu, honako hau da

- a) opera
- b) oratorioa
- ☒ c) lied
- d) poema sinfonikoa
- e) musika-errezitalak

48. Nazionalismo musikala

- a) musika tradizionalaren ondorio bat da
- b) Iraultza Frantsesaren ondorio bat da
- ☒ c) Erromantizismoan lantzen diren ideien ondorio bat da
- d) Impresionismoak eskeintzen duen lengoia berriaren ondorio bat da
- e) XX. mendean ematen den independentismoaren ondorio bat da

49. XX. mendeko hasieran, musikaren panorama benetan aldatzen duten musikariak aipatu:

- a) Stockhausen eta Stravinsky
- ☒ b) Stravinsky eta Schönberg
- c) Schönberg eta Debussy
- d) Debussy eta Stockhausen
- e) guztiak dira

50. Tonalitatearen eragina

- a) Klasizismoko bukaerarekin desagertzen da
- b) Erromantizismoarekin gero eta gutxiago azaltzen da
- c) ideologia nazionalistarekin bat ez datorrenez baztertzen da
- ☒ d) Impresionismo musikalararekin garrantzia galtzen doa
- e) XX. mendeko lengoai berriekin desagertzen da

